

## INGURUNE ARLOAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

### Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	Bentades Ikastetxea	Kodea:	014777	Ikasmaila:	6. maila
Etapas:	Lehen Hezkuntza	Ziklo-maila:	3. zikloa, Lehen Hezkuntzako 6. maila		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arloa/Gaia</li> <li>• Eremua</li> <li>• Diziplinarteko proiektua</li> <li>• Beste batzuk</li> </ul>	Ingurune	Irakasleak:	Ugaitz Orbe eta Ainhoa Enzunza.		

### Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

#### Programazio didaktikoaren justifikazioa:

Urteko programazio didaktikoa irakaskuntzako jarduera profesionalaren parte da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten dituen helburu bat da, garatu nahi diren konpetentziak aztertzen dituen. Ondorioz, ikasleek arrakasta izateko ahalik eta itxaropen handienak garatzeko irakasle talde batean hartzen diren erabakiak zehazten dituen.

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako Ikasleen irteera-profila da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko konpetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.

Irteera-profilaren abiapuntua da konpetentzia giltzarrien ikuspegi estrukturala eta funtzionala aldi berean, eta hori eskuratzea

ezinbestekotzat jotzen da ikasleek beren garapen pertsonalerako, beren bizitzako esparruetako egoerak eta arazoak konpontzeko, hobetzeko aukera berriak sortzeko, bai eta haien sozializazioa garatzeko, prestakuntza-ibilbidearen jarraipena lortzeko eta gizartean eta ingurune naturalaren eta planetaren zaintzan aktiboki txertatzeko eta parte hartzeko ere. Proiektu hori ikaskuntza desberdinen elementu artikulatzailea da, eta, horri esker, zenbait erronkei aurre egin ahal izango die.

Oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditzen duen ikasle orok, eta, beraz, irteera-profila lortzen duenak, eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar izango dituen erronka nagusiei erantzuteko. Horren barruan sartzen dira:

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoien ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- Kontsumo arduratsuarekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketan aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibiltatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.

- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko, funtsezko konpetentzien azpian dauden ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak behar dira, eta curriculumak osatzen duten arlo, eremu eta jakintzagai guztietan lantzen dira. Horiek eskaintzen dituzten curriculum-elementuek ikasleei beren inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete, eta, horrela, egoera kritikoki baloratzeko eta behar bezala erantzuteko aukera ematen diete.

Hemen aurkezten den curriculumak konpetentzia-ikuspegia du, eta bertan, erronkei aurre eginez eskuratzen dira edukiak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Horrek ikaskuntzak eskuratzea eta mobilizatzea eta horiek transferitzeko gaitasuna bultzatzen du, eta, horrela, ikasleen prestakuntza-bilakaeran heldutasun-maila eta kalitate handiagoko ikaskuntza garatzen da.

Hurrengoak dira eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak:

- **Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia:** Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du hainbat esparru eta testuingurutan modu koherente eta egokian elkarrekintzan jardutea, ahoz, idatziz, siglatuan edo multimodalean, eta hainbat komunikazio-helbururekin.
- **Konpetentzia eleaniztasuna:** Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea eskatzen du.
- **Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzako konpetentzia:** Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentziak mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniartzako metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.
- **Konpetentzia digitala:** Konpetentzia digitalak teknologia digitalak modu seguruan, osasungarrian, jasangarrian, kritikoa eta arduratsuan erabiltzea eskatzen du, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta horiekin elkarreragitea ere.
- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa:** Konpetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoak berekin dakar nor bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko.

- **Herritartasunerako kompetentzia:** Herritartasunerako kompetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta.
- **Ekintzaitza kompetentzia:** Ekintzaitzarako kompetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoak erabiliz.
- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia:** Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako kompetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea.

Justifikazio legala aldera batera utziz, eskolako testuinguruari buruz hitz egingo dugu. Bentades Ikastetxea Mungian kokatzen den eskola bat da, uribe kosta zonaldean. Eskola honetako familiak maila sozioekonomiko ertaina dute eta datu soziolinguistikoei dagokienez esan dezakegu nahiz eta Mungia herri euskalduna izan, gero eta etorkin gehiago daudela eta hau ikastetxean isladatzen da.

Ikastetxe honetan 700 ikasle inguru ditugu haurtzaindegitik hasi eta derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu arte. Maila bakoitzean bi lerro daude. Ikasketak D ereduan gauzatzen dira.

Ikastetxeko baliabide materialak hurrengoak dira Lehen Hezkuntzan. Ikasle talde bakoitzak bere gela dauka eta horrez gain, musika gela, plastika gela, liburutegia, jantokia eta areto nagusia ditugu. Solairu batetik bestera igotzeko behar izatekotan igogailu bat daukagu. Beste alde batetik, heziketa fisikoa egiteko patioaz gain, eskolako sotoa eskuragarri daukagu. Hura espazio oso handia eta estalia da. Normalean heziketa fisikorako erabiltzen da baina antzerkiak edo tailerrak egiteko ere erabilgarria izan daiteke.

Beste alde batetik, geletako baliabide materialak hurrengoak dira. Ikasgela guztietan bi arbel ditugu: klarionazkoa eta digitala. Ikasleek liburuak dituzte zenbait irakasgaietan baina ingurune eta euskerako arloetan adibidez guk sortutako materialarekin lan egiten dute. 3.zikloan, aldiz, ikasle bakoitzak bere Chromebooka dauka eta liburu gehienak era digitalean dituzte.

Baliabide pertsonalei dagokienez, Lehen Hezkuntzan 15 irakasle daude tutore eta irakasle espezifikoak gehituz. Beste alde batetik, orientazio talde bat dugu eta bertan 6 espezialista daude. Horrez gain eskolako orientatzaile eta psikologoa dugu behar izatekotan. Irakasleak ez diren beste profesional batzuk ere lan egiten dute eskolan gure egunerokotasuna errazago izateko, adibidez: jantokiko

langileak, eskolako atezainak, idazkariak, zuzendariak, eta abar.

Ikasle batzuen beharrezanean erantzuna emateko Berritzegunetik ere zenbait espezialista etortzen dira eskolara, adibidez: logopega, fisioterapeuta, eta abar.

Eskolan zenbait proiektuetan murgilduta gaude baina maila honetan ikasleek ez dute denetan parte hartzen. Hurrengoak dira:

- Agenda 30.
- Euskera eta normalkuntza
- Hizkuntza hirueleduna
- Bizikidetzak
- IKT eta metodologia berriak
- Hezkidetzak

Pasaden kurtsoko urteko memorian argitaratu zen bezala, hurrengoak dira etapa moduan ikasturte honetara begira planteatu genituen hobekuntzak:

- Metodologiari dagokionez, berrikuntzak sartzen jarraitu nahi dugu eta hasitako hobekuntza bidearekin jarraituko da.
- Euskerarekin lotuta gabezia ugari identifikatu ditugu eta hauei erantzuteko metodologia aldaketa bat proposatu da. Kurtso honetan zehar, irakasleok sortuko dugu materiala ziklo bakoitzari egokituta. Era horretan, ikasleak modu dinamiko eta erakargarrian hizkuntza bereganatu dezaten.

Programazio honen kalitatea eta emaitza bermatzeko, helburu errealistak ezarri behar ditugu. Horretarako irakasgai hau ematen duten irakasleak batu dira eta haien ikasleen errealitateara moldatu.

Kurtso honetan, beste guztietan bezala bi lerro ditugu. Gela batean 26 ikasle daude eta bestean 25. Ikasle gehienak testuinguru euskaldun batean hasiak dira, atzerritar bi ditugugela bien artean. Horietariko bat orain dela 5 urte hasi zen eskolan, beraz hizkuntzan zailtasunak eduki arren, oinarrizkoa menperatzen du. Beste ikasle atzerritarra pasaden kurtsoan etorri zen eta beraz, oinarrizkoa oraindik ez du menperatzen.

Beste alde batetik, premia bereziko 7 ikasle ditugu gela bien artean banatuta. Hauek J.P.P.a (jarduera plan pertsonalizatua) dute eta moldaketak egiten zaizkie, bakoitzari bere beharrianetara. Hala ere, ikasle hauek orientazio departamentuko irakasleengatik ere laguntza jasotzen dute gela barnean, haien ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

Gure helburua ikasleek era dinamiko batean oinarritzko jakintzak eta kompetentziak lantzea da pertsona arduratsu, autonomo, sortzaile eta kritikoak bihurtzeko. Bide hori jarraitu ahal izateko programazio hau haien beharrianetara moldatuta dago.

## Curriculum-plangintza

Ikaskuntza egoeren	Arloak, gaiak, eremua			Oinarritzko ezagutzak
--------------------	-----------------------	--	--	-----------------------

izenburua (IkE)		<b>Konpetentzia espezifikoak</b> 1. <a href="#">ERANKSINEAN daude azalduta</a>	<b>Ebaluazio-irizpideak</b> 2. <a href="#">ERANSKINEAN daude azalduta</a>	3. <a href="#">ERANSKINEAN daude azalduta</a>
LEHENENGO HIRUHILEKOA				
Gizartean bizitza	Ingurune	<b>1</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, EK3, KPSII5	1.1 1.2 1.3	<b>A: Kultur zientifikoa</b> A.1.2 A.1.4  <b>B: Teknologia eta digitalizazioa</b> B.1.1 B.1.2 B.1.3 B.1.4 B.1.5 B.2.1 B.2.2 B.2.5  <b>C: Gizarteak eta lurraldeak</b> C.1.3 C.3.4 C.3.7 C.3.10 C.3.11 C.3.12
		<b>2</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII4, KPSII5, HK4, EK1, EK3.	2.1 2.2 2.5	
		<b>3</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD5,	3.1 3.2 3.3 3.4	

		KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK4.		
		<b>4</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KE3, STEM5, KD2, KD3, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK3, HK4, EK1.	4.2	
		<b>5</b> HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD1, KPSII4, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2	5.1 5.4	
		<b>6</b> HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, STEM6, KD2, KD3, KD5, KPSII4, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK1	6.1 6.2	

		<p><b>8</b> HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2</p>	<p>8.1 8.2</p>	
		<p><b>9</b> HKK1, HKK5, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII1, HK1, HK2, HK3, KAKK1</p>	<p>9.1 9.2</p>	
ZELULAK	Ingurune	<p><b>1</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, EK3, KPSII5</p>	<p>1.1 1.2 1.3</p>	<p><b>A: Kultur zientifikoa</b> A.1.2 A.1.3 A.1.4 A.1.5 A.1.6 A.2.1 A.2.2</p>
		<p><b>2</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII4, KPSII5, HK4, EK1, EK3.</p>	<p>2.2 2.3 2.5</p>	<p><b>B: Teknologia eta digitalizazioa</b> B.1.1 B.1.2</p>

				B.1.3 B.1.4 B.1.5 B.2.1 B.2.2 B.2.5
		<p><b>3</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD5, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK4.</p>	<p>3.3 3.4</p>	
		<p><b>4</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KE3, STEM5, KD2, KD3, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK3, HK4, EK1.</p>	<p>4.2 4.3</p>	
		<p><b>5</b> HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD1, KPSII4, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2</p>	<p>5.1 5.2</p>	
		<p><b>6</b></p>	<p>6.2</p>	

		HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, STEM6, KD2, KD3, KD5, KPSII4, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK1		
BIGARREN HIRUHILEKOA				
Gure mundua eta bere kontserbazioa	Ingurune	<b>1</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, EK3, KPSII5	1.1 1.2 1.3	<b>A: Kultur zientifikoa</b> A.1.2 A.1.3 A.1.4 A.1.5 A.1.6 A.2.1 A.2.2 A.3.1 A.3.2 A.3.3 A.3.4  <b>B: Teknologia eta digitalizazioa</b> B.1.1 B.1.2 B.1.3
		<b>2</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII4, KPSII5, HK4, EK1, EK3.	2.1 2.2 2.5	
		<b>3</b> HKK1, HKK2, HKK3,	3.1	

		KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD5, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK4.	3.2 3.3 3.4	B.1.4 B.1.5 B.2.1 B.2.2 B.2.5  <b>C: Gizarteak eta lurraldeak</b> C.1.1 C.1.4 C.4.1 C.4.2 C.4.3 C.4.5
		<b>4</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KE3, STEM5, KD2, KD3, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK3, HK4, EK1.	4.2	
		<b>5</b> HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD1, KPSII4, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2	5.1 5.2 5.3 5.4	
		<b>6</b> HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1,	6.1 6.2	

		STEM2, STEM5, STEM6, KD2, KD3, KD5, KPSII4, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK1		
		<b>8</b> HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2	8.1	
Ugal aparatua eta nutrizio aparatua	Ingurune	<b>1</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, EK3, KPSII5	1.1 1.2 1.3	<b>A: Kultur zientifikoa</b> A.1.2 A.1.4 A.1.5 A.2.1 A.2.2 A.2.3 A.2.4 A.2.5
		<b>2</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII4, KPSII5, HK4, EK1, EK3.	2.1 2.3 2.5	<b>B: Teknologia eta digitalizazioa</b> B.1.1 B.1.2

				B.1.3 B.1.4 B.1.5 B.1.6 B.1.8 B.2.1 B.2.2 B.2.4 B.2.5
		<b>3</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD5, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK4.	3.2 3.3 3.4	<b>C: Gizarteak eta lurraldeak</b> C.1.6
		<b>4</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KE3, STEM5, KD2, KD3, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK3, HK4, EK1.	4.1 4.2 4.3	
		<b>5</b> HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD1, KPSII4, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2	5.2	
		<b>6</b>	6.2	

		HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, STEM6, KD2, KD3, KD5, KPSII4, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK1		
HIRUGARREN HIRUHILEKOA				
Aro garaikidea	Ingurune	<b>1</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, EK3, KPSII5	1.1 1.2 1.3	<b>A: Kultur zientifikoa</b> A.1.2 A.1.4 A.1.5
		<b>2</b> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII4, KPSII5, HK4, EK1, EK3.	2.1	<b>B: Teknologia eta digitalizazioa</b> B.1.1 B.1.2 B.1.3 B.1.4 B.1.5 B.1.6 B.2.1 B.2.4
		<b>5</b>	5.2	

		HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD1, KPSII4, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2	5.3 5.4	B.2.5  <b>C: Gizarteak eta lurraldeak</b> C.1.3 C.1.4 C.1.5 C.1.6 C.2.1 C.2.2 C.2.3 C.2.5 C.2.6 C.3.2 C.3.4 C.3.6 C.3.8 C.3.9
	<b>6</b>	HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, STEM6, KD2, KD3, KD5, KPSII4, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK1	6.1	
	<b>7</b>	HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD4, KD5, KPSII4, HK1, HK3, EK2, KAKK1.	7.1	
	<b>8</b>	HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE3, KD1, KD2, KD3,	8.1 8.2	

		KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2		
Makinak	Ingurune	<p style="text-align: center;"><b>1</b></p> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, EK3, KPSII5	1.1 1.2 1.3	<p><b>A: Kultur zientifikoa</b></p> A.1.2 A.1.3 A.1.4 A.1.5 A.1.7 A.2.1 A.2.6 A.3.1 A.3.3 A.3.4  <p><b>B: Teknologia eta digitalizazioa</b></p> B.1.1 B.1.2 B.1.3 B.1.4 B.1.5 B.2.1 B.2.2 B.2.3 B.2.5
		<p style="text-align: center;"><b>2</b></p> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KPSII4, KPSII5, HK4, EK1, EK3.	2.1 2.2 2.3 2.4 2.5	
		<p style="text-align: center;"><b>3</b></p> HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KD5, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK4, EK1, EK2, EK3,	3.1 3.2 3.3 3.4	

		KAKK4.		<b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b> C.2.1 C.3.10
		<b>5</b> HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD1, KPSII4, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2	5.1 5.2 5.3 5.4	
		<b>6</b> HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, STEM6, KD2, KD3, KD5, KPSII4, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK1	6.1 6.2	

## Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, anistazunari erantzuna, etab.

### A. Jarraibide metodologikoak:

A.1. Eredu metodologikoak: Metodologia proiektutan oinarritutako ikaskuntzan eta arazo egoeretan oinarrituko da. Ikasleek ingurunea esploratuko dute, beren mailari egokitutako ikerketa zientifikoko metodoak erabiliz. Beste metodologia batzuk ere erabiliko dira, hala nola ikaskuntza kooperatiboa, non ikasleek taldean lan egingo duten arazoak konpontzeko eta emaitzak aurkezteko.

A.2. Multzokatzeak: Multzokatzeak malguak izango dira, proiektuaren fase desberdinetara egokituz. Talde txikietan antolatuko dira talde-lana eta ideien trukea sustatzeko, eta ikerketa taldeak osatuko dituzte behaketa, datu bilketa eta ondorioak aurkezteko. Multzokatze hauek komunikazio trebetasunak eta talde-lanean aniztasuna errespetatzeko gaitasuna garatuko dituzte.

A.3. Espazioak: Ikasketa-espazio nagusia ikasgela izango da. Horrez gain, behar izatekotan beste espazioen batera mugitu gaitzke, behrrikanen arabera.

A.4. Baliabideak: Baliabide desberdinak erabiliko dira, besteak beste:

- Material multimedia eta interaktiboa (aurkezpenak, bideoak, aplikazioak eta simulazioak).
- Inprimatutako baliabideak (mapak, eskuorriak eta artxibo dokumentuak), historia eta geografia ulertzeko.
- Kanpo materialak, hala nola behaketa zuzenerako beste material batzuk.

A.5. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak: Hainbat jarduera proposatuko dira, hala nola birziklatze ekintza desberdinak. Jarduera guzti hauek Agenda 30 proiektuaren barne biltzen dira.

## **B. Aniztasunari arreta:**

Ikasleen aniztasunari erantzuteko, edukia eta jarduerak egokituko dira, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-erritmoaren eta premien arabera helburuak lor ditzan. Dibertsifikazio estrategiak erabiliko dira, hala nola laguntza-materialak, ikusizko laguntzak eta azalpen egokituak. Egia bada ere talde-lanak izango direla gure oinarri, gelan landutakoa modu bisual eta argian eskuragai izan dezaten, mapa kontzeptualak banatuko zaizkie ikasle guztiei. Hauek ere baliagarri izango dira etxean gelan landutako birpasatu ahal izateko. Halaber, aurrerapen azkarra duten ikasleei jarduerak zabaltzeko aukera eskainiko zaie. Aniztasunari arreta horretan ikasle guztiek ekarpena egin dezakete, beren gaitasunen arabera.

Curriculum-a hasiera batetik egokitua egon behar da ikasleentara eta ez alderantziz. Horrela, curriculum pertsonalizatu eta praktikoagoa lortuz, non ikasle guztien beharrak erantzuten eta asetzen diren. Beraz, hori lortzeko Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala-ren (IDU) 3 printzipioak martxan jarri behar dira.

**I. printzipioa:** Ikasleei erraminta eta bide desberdinak emango zaizkie autonomiaz informazioa eta oinarrizko jakintzak eraikitzeko.

**II. printzipioa:** ikasleek ikasitakoa era desberdinetan adierazi ahalko dute: idatziz, ahoz eta abar. Bakoitzaren beharrianetara moldatuko gara eta baita ebaluazioaren zein momentutan gauden.

**III. printzipioa:** ikasleei erronka ezberdinak aurkeztuko zaizkie era desberdinetan parte hartu ahal izateko eta era horretan ikasle guztiak ikaskuntza prozesuan konprometitu eta motibatu daitezke era desberdinetan.

## **C. Ebaluazioa :**

Ebaluazioa jarraia izango da, eta honela burutuko da:

- Behaketa zuzena, jarduera eta proiektuetan ikasleek duten errendimendua neurtzeko.
- Ebaluazio errubrikak erabiltzea, konpetentzia zehatz eta jarrerazkoak baloratzeko (erantzukizuna, ingurunea

errespetatzea eta elkarlana).

- Autoebaluazioa eta koebaluazioa, ikasleek beren lorpenak eta zailtasunak hausnartzen dituztenean, beren ikaskuntza-prozesuaren gaineko kontzientzia sustatzeko.

Gainera, ebaluazioaren barne dira ebaluazio kualitatibo eta kuantitiboak, edukien ulermena eta kompetentzien garapena neurtzeko.

#### **D. Errefortzurako estrategiak eta berreskurapen-planak:**

Kompetentzien ulermenean eta garapenean zailtasunak dituzten ikasleei laguntza eskainiko zaie:

- Banakako indartze-jarduerak eta talde txikietan.
- Tutoretza pertsonalizatuak eskaintzea, oinarritzko kontzeptuak berrikusteko.

### **Ebaluazio-erabakiak, ebaluaziotik ateratako ondorioak eta kalifikazio-irizpideak**

#### **Ebaluazioa**

- Helburua (formatiboa, akreditatzailea)
- Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)
- Ebaluatze teknikak, tresnak eta erramintak
- Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)

- Helburua ebaluazio formatiboa izatea da.
  - Ebaluazio hezitzailea:
    - Ikaskuntza- irakaskuntza prozesuan zehar.
    - Informazio bilketa jarraia.
    - Ikaskuntza- irakaskuntza gidatzeko eta ikasleen jarduna hobetzeko erabiliko da.
  - Ebaluazio hezigarria: ikasleek bideratua.
- Finkatutako denborak: ebaluazioa prozesuaren hasieran, prozesuan zehar eta amaieran izango da.
- Ebaluatze teknikak:
  - Behaketa etengabearen oinarrituta

	<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="radio"/> Banakako eta taldeko jarduerak.</li> <li><input type="radio"/> Froga.</li> <li>• Eragileak: <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="radio"/> Autoebaluazioak.</li> <li><input type="radio"/> Koebaluazioak.</li> </ul> </li> </ul>			
<p><b>Ebaluazioaren ondorioak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kalifikazioa</li> </ul>	<p>Ikasle baten ikaskuntzari buruzko ebidentzia asko eta anitzak eskuratu eta gero, ebaluaziotik eratorzen den kalifikazioa lortuko dugu.</p> <p>Konpetentzia espezifikoa oinarri hartuta egingo da eta hauen zehaztapen maila lorpen adierazleak izango dira.</p> <p>Ebaluaketa bakoitzaren amaieran boletín bate jasoko dute familiek. Boletín honetan irakasgai honetako konpetentzia espezifikoetan lortutako maila agertuko da: maila aurreratua, maila ertaina edo hasierako maila; kolorez adierazita.</p> <p>Honez gain, kurtso bukaeran eta Hezkuntza sailak ezarrita notak era kualitatibo baten jarri behar ditugu Hezkuntzako plataforman.</p>			
<p><b>Kalifikazio-irizpideak</b></p> <p>Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea</li> <li>• Ebaluazio irizpideen jardun maila</li> </ul>	<p>Azken kalifikazioa konpetentzia espezifikoen ponderazioarekin lortuko da. Ondoren adierazten den konpetentzia espezifikoen ponderazioa hartuko da kontuan.</p> <p><i>* Konpetentzia espezifiko guztien ponderazioa ez da zertan berdina izan.</i></p> <table border="1" data-bbox="770 1254 2101 1362"> <thead> <tr> <th data-bbox="770 1254 1211 1362"><b>ZER</b></th> <th data-bbox="1211 1254 1655 1362"><b>PORTZENTAIA</b></th> <th data-bbox="1655 1254 2101 1362"><b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</b></th> </tr> </thead> </table>	<b>ZER</b>	<b>PORTZENTAIA</b>	<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</b>
<b>ZER</b>	<b>PORTZENTAIA</b>	<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</b>		

adostea.

- Gaitasunen garapen-maila adostea
- Berriazko gaitasunen ponderazioa,
- ebaluazio-irizpideak... definitzea)

<b>1. HIRUHILEKOA</b>		
<b>1. Proiektua: Gizartean bizitzea</b>		
Portafolioa (erronketan egindako talde eta banakako jarduerak)	% 50	1, 2, 3, 4, 6, 8, 9
Mapen froga	% 10	1, 5
Ekonomiaren froga	%10	3,5
<b>2. Proiektua: Zelulak</b>		
Arazoak (erronkak)	% 20	1, 3, 5
Froga	% 10	1, 3, 5
<b>2. HIRUHILEKOA</b>		
<b>3. Proiektua: Gure mundua eta bere kontserbazioa</b>		
Europako erliebea (Erronkak + portafolioa)	%30	1, 2, 3, 5
Erliebearen froga	%10	5
Talde lana	%10	1, 3
<b>4. Proiektua: Ugal aparatua eta nutrizio aparatua</b>		
Ugal aparatua (albuma)	%30	1, 4, 5, 6, 8
Nutrizioa (arazoak)	%20	1, 2, 3, 4

	<b>3. HIRUHILEKOA</b>		
	<b>5. Proiektua: Aro garaikidea</b>		
	Denboraren arrastoa. Aro Garaikidea (Denbora lerroak + antzerkia)	%40	1, 2, 5, 6, 7, 8
	<b>6. Proiektua: Makinak</b>		
	Makinak	%60	1, 2, 3, 5, 6

## 1.ERANSKINA: KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Informazioa bilatzea eta hautatzea bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, bai banaka bai taldean, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, teknologia digitalak modu seguruan eta iraunkorrean erabiltzeko ohiturak hartuz, informazio hori ezagutza bihurtzeko eta modu antolatuan eta sortzailean komunikatzeko.
2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilia, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko.
3. Arazo-egoerak diziplinarteko proiektuen bidez ebaztea, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz, premia zehatzei erantzungo dien produktu sortzaile eta berritzaile bat lankidetzan sortzeko.
4. Norberaren gorputza, norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak ezagutzea eta horien kontzientzia hartzea, eta ezagutza zientifikoan oinarritutako ohitura osasungarriak garatzea, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko.
5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.
6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.

7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.
8. Aniztasuna eta genero-berdintasuna onartzea eta baloratzea, pertsona guztiekiko enpatia eta errespetua erakutsita, gai etikoei buruz modu kritikoan hausnartuta, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate indibidual eta kolektiboan laguntzeko eta European bizikidetza baketsua eta errespetuzkoa lortzeko.
9. Gizarte-ingurunean eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzea, Adierazpen Unibertsalek eta Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legeriak bultzatutako printzipio demokratikoekezartzen dituzten balioak errespetatuz, erakunde demokratikoei bakea eta segurtasuna mantentzekoduten funtzioa baloratuz, errespetuzko harremanak sortzeko eta gatazken kudeaketa baketsua eta elkarrizketa bidezkoa sustatzeko.

## 2. ERANSKINA: EBALUAZIO IRIZPIDEAK

### 1. KONPETENTZIA

1.1. Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta bereizteko estrategiak planteatutako helburura egokituta erabiltzea.

1.2. Bi iturritatik baino gehiagotatik datorren informazioa bilatzea, hautatzea eta antolatzea, banaka eta taldean, modu planifikatuan eta pixkanaka autonomoan, fidagarritasuna ebaluatuz, oinarrizko hiztegi zientifikoa eskuratuz eta eraginkortasunez komunikatuz, zereginaren helburuen arabera.

1.3. Baliabide digitalak erabiltzea, zereginaren premien eta hezkuntza-testuinguruaren arabera edukiak sortzeko, modu eraginkor eta kritikoa, erabilera seguru eta iraunkorrerako ohiturak hartuz.

### 2. KONPETENTZIA

2.1. Modu kooperatiboan gogoeta egitea pentsamenduak historian zehar izan duen bilakaeraren inguruan, galdera egokiak eginez, prozesu horren gakoak ulertuz, egungo ebidentzia zientifikoak dagokion garaiaren pentsamendu zientifikoarekin kontrastatuz eta egungo garaira ekarriz.

2.2. Natura-, gizarte- edo kultura-ingurunearekin lotutako gaiei buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak aztertuz eta interpretatuz, izan daitezkeen irtenbideen koherentzia baloratuz eta egindako iragarpenekin alderatuz.

2.3. Esperimentuak diseinatzea eta egitea, ikerketak hala eskatzen duenean modu gidatuan, hainbat ikerketa-teknika baliatuz, tresna eta gailu egokiak modu seguruan erabiliz, behaketa eta neurketa zehatzak eginez, behar bezala erregistratuz eta horien emaitzak jakinaraziz.

2.4. Ereduak modu autonomoan diseinatzea eta eraikitzea, esperimentaziotik abiatuta lortutako ezagutza zientifikoak aplikatuz eta azken prozesuari eta produktuari buruz gogoeta eginez

2.5. Ikerketen emaitzak modu kooperatiboan komunikatzea, mezua eta formatua hartzaile den audientziara egokituz, hizkuntza zientifikoa erabiliz, emandako urratsak azalduz eta genero-ikuspegia hartuz.

### **3. KOMPETENTZIA**

3.1. Prototipo edo soluzio digital baten diseinu sortzailearen bidez ebatzen diren problemak planteatzea, ingurunearen beharrak ebaluatuz eta helburu zehatzak ezarriz.

3.2. Planteatutako problemen soluzio posibleak diseinatzea, diseinu-pentsamenduko eta pentsamendu konputazionalako teknika sinpleen arabera, proiektu kooperatiboak kudeatzeko oinarrizko estrategien bidez, beharrezko baliabideak kontuan hartuz eta proiektua ebaluatzeko irizpide objektibo zehatzak ezarriz.

3.3. Diseinu-problema bati soluzioa emango dion azken produktu bat taldean garatzea, zenbait prototipo edo soluzio digital probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz.

3.4. Diseinu-proiektuen emaitzak jakinaraztea, mezua eta formatua entzuleei egokituz, emandako urratsak azalduz, prototipo edo soluzio digital horrek proiektuaren baldintzak zergatik betetzen dituen justifikatuz eta etorkizuneko proiektuetarako erronka posibleak proposatuz

### **4. KOMPETENTZIA**

4.1. Bizi-ohitura osasungarriak hartzea, elikadura askotarikoaren eta orekatuaren, ariketa fisikoaren, atsedenearen, higieనేaren eta gaixotasunen prebentzioaren garrantzia baloratzuz.

4.2. Ongizate emozionala eta soziala bultzatzen duten jarrerak sustatzea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuz, horiek baliaraziz, harreman afektibo osasungarriak sustatuz eta teknologiaren erabilerari eta aisialdiaren kudeaketari buruz gogoeta eginez.

4.3. Norberaren gorputza ezagutzea, onartzea eta errespetatzea, aniztasuna gizartearen elementu aberasgarri gisa baloratuz, enpatia erakutsiz eta desberdina denarekiko tolerantzia izanez.

## **5. KOMPETENTZIA**

5.1. Natura-, gizarte- eta kultura-inguruneko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea eta aztertzea, ikerketa-metodologiaren bidez, tresna eta prozesu egokiak erabiliz eta emaitzak jakinaraziz.

5.2. Natura-, gizarte- eta kultura-inguruneko elementuen arteko konexio errazak egitea, haien artean sortzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz.

5.3. Aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin ideia zientifikoak modu kritikoan aztertzea eta baloratzea, bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela onartuz.

5.4. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak baloratzea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatuko dituzten proposamen eta ekintzen bidez.

## **6. KOMPETENTZIA**

6.1. Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea, alderdi soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz, eta problemak identifikatuz. Bizitza iraunkorraren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean jendaurrean jakinarazteko.

6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean, banaka eta taldean soluzio arrazoituak eman.

## 7. KOMPETENTZIA

7.1. Erdi Arotik gaur egunera bitarteko natura-, gizarte- eta kultura-inguruneko elementuen arteko kausalitate-, aldiberekotasun- eta segida-erlazioak aztertzea, gertakari eta pertsona garrantzitsuak ardatz kronologikoetan kokatuz eta historiaren hainbat garaitako gizarte-ezaugarri esanguratsuak identifikatuz.

## 8. KOMPETENTZIA

8.1. Norberaren eta taldearen ongizatea eta Europaren integrazioaren balioak lortzen laguntzea, egungo gizartea itxuratu duten prozesu geografiko, historiko eta kulturalak ezagutuz, kultura-aniztasuna baloratu, eta pertsona guztiekiko eta genero-berdintasunarekiko enpatia eta errespetua erakutsiz.

8.2. Genero-berdintasuneko jarrerak, ikuspegi ez-estereotipatuak eta jokabide ez-sexistak sustatzea, gure gizartean dauden eredu desberdinak aztertuz eta alderatuz.

## 9. KONPETENTZIA

9.1. Interakzio errespetuzkoa eta ekitatiboa sustatzea, eta gatazkak modu baketsuan eta elkarrizketaren bidez ebaztea hizkera inklusiboa eta indarkeriarik gabekoa erabiliz, eta Espainiako eta Europar Batasuneko konstituzioetako arau, eskubide, betebeharrak eta askatasun nagusiak azalduz eta baliatuz.

9.2. Udalerriko, foru-aldundietako, autonomia-erkidegoetako, Espainiako estatuko eta Europar Batasuneko gobernu-organoen funtzionamendu orokorra eta parte-hartze demokratikorako haien formak azaltzea, dituzten funtzioak eta herritarrentzako zerbitzu publikoen kudeaketa baloratuz.

9.3. Zirkulazio-arauak gaizki erabiltzearen ondorioak kritikoki baloratzea eta barneratzea, eta mugikortasun iraunkorragoa eta arduratsuagoa lortzeko alternatibak proposatzea.

## 3.ERANSKINA: OINARRIZKO JAKINTZAK

### **A: Kultura zientifikoa**

#### **1. Jarduera zientifikorako hastapenak**

A.1.1. Gizarte-zientzien, giza zientzien eta natura-zientzien arteko bereizketa, eta bereizketa hori eragin duen garapen historikoa.

A.1.2. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuetan informazioa bilatzeko, hautatzeko, antolatzeko eta zabaltzeko estrategiak, bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, modu kooperatiboan, banaka eta/edo taldean, informazio horren egokitasuna eta fidagarritasuna baloratuz eta erabilitako iturrien egiletza aipatuta.

A.1.3. Metodologia zientifikoa aplikatzeko irizpideak, jarraibideak eta faseak (behaketa, galderak eta iragarpenak egitea, esperimentuak planifikatzea eta egitea, informazioa eta datuak biltzea eta aztertzea, emaitzak jakinaraztea...), eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalen eta egoera errealen problemak behatzean, identifikatzean eta ebaztean.

A.1.4. Ikerlanaren berezko estrategiak, honako hauekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzen laguntzen dutenak: jakin-mina, interesa, zorroztasuna eta zehaztasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia lan pertsonalean, eta jarrera arduratsu eta aktiboa zereginetan, banakakoetan zein taldekoetan; genero-ikuspegia kontuan hartuta.

A.1.5. Oinarrizko hiztegi zientifikoa; ikerketaren beharren arabera behaketa eta neurketa zehatzak egiteko tresna eta gailu egokiak erabiltzeko prozedurak eta jarraibideak.

A.1.6. Zientzia, teknologia eta ingeniariak giza jarduera gisa, STEM lanbideak gaur egun genero-ikuspegitik.

A.1.7. Matematikan, zientzian, ingeniarietan eta teknologian egindako aurrerapenen arteko lotura, gizarteak esparru zientifiko-teknologikoan, eremu publikoan zein pertsonalean, izan duen bilakaera ulertzeko.

#### **2. Bizitza gure planetan**

A.2.1. Gizakiaren bizi-funtzioen oinarrizko alderdiak ikuspegi integratu batetik: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziea betikotzea.

A.2.2. Izaki bizidunen oinarrizko egiturak: zelulak, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak; eta izaki bizidunaren funtzionamendurako elkarrekiko duten erlazioa.

A.2.3. Pubertaroak eta nerabezaroak berekin dakartzaten aldaketa fisikoak, emozionalak eta sozialak; horiek norberarengan zein besteengan modu positiboan onartzea hezkidetzatza-testuinguru batean. Hezkuntza afektibo-sexuala.

A.2.4. Elikadura osasungarri eta iraunkorrerako jarraibideak, eta horiek ez betetzeak dakartzan arriskuak eta gaixotasunak: menu osasungarri eta orekatuak, erosketa-saskiaren garrantzia eta elikagaiak etiketatzearen garrantzia horien mantenua eta energia-ekarpena ezagutzeko.

A.2.5. Jokabide osasungarri eta iraunkorrak, osasun fisiko, emozional eta sozial egokia sustatzen dutenak, eta halakorik ezaren ondoriozko arriskuak eta gaixotasunak: estresaren eta ziurgabetasun-egoeren kudeaketa. Kontsumo arduratsua eta iraunkorra, loaren higieena, aisialdiaren kudeaketa, gailu digitalen erabilera egokia eta gizarte-harreman osasungarriak sustatzeko estrategiak, adikzioen ondorio kaltegarriak pertsonen garapenean eta kontsumoaren prebentzioa: tabakoa, alkohola eta beste substantzia batzuk. Lehen laguntzak.

A.2.6. Erliebea eratzeko eta modelatzeko oinarrizko prozesu geologikoak. Arroken eta mineralen oinarrizko sailkapena. Baliabide geologikoen erabilerak eta ustiapen iraunkorra.

### **3. Materia, indarrak eta energia**

A.3.1. Masa eta bolumena. Masa eta bolumena kalkulatzeko tresnak.

A.3.2. Dentsitatearen kontzeptua eta horrek duen erlazioa objektu batek fluido batean (likidoa eta gasa) duen flotagarritasunarekin.

A.3.3. Energia elektrikoa. Iturriak, eraldaketak, transferentzia eta erabilera eguneroko bizitzan. Zirkuitu elektrikoak eta egitura robotizatuak.

A.3.4. Energia-formak, iturriak eta transformazioak. Energia berriztagarrien eta berriztaezinen iturriak, eta horien eragina gizartearen garapen iraunkorrerako ekarpenean.

A.3.5. Airearen propietateak, aireak objektuekin duen interakzioaren azterketa esperimentalak, objektuen formaren eta hegadan inplikaturako indarren arabera.

## **B. Teknologia eta digitalizazioa**

### **1. Ikaskuntza-ingurune pertsonala digitalizatzea**

B.1.1. Gailu eta baliabide digitalak hezkuntza-testuinguruaren beharren arabera.

B.1.2. Interneten informazio bilatzeko estrategia seguru eta eraginkorak (balorazioa, diskriminazioa, hautaketa, antolaketa eta jabetza intelektual).

B.1.3. Datuak biltzeko, biltegitzeko eta irudikatzeko estrategiak, haiek errazago ulertzeko eta aztertzeko.

B.1.4. Interneten nabigatzeko eta ikaskuntzako ingurune digital pertsonala babesteko oinarrizko segurtasun- eta pribatutasun-arauak.

B.1.5. Beste pertsona batzuekin komunikatzeko baliabide eta plataforma digital mugatuak eta seguruak.

B.1.6. Komunikazio digitala modu ez-sexistan erabiltzeko jarraibideak.

B.1.7. Etiketa digitala, kortesiazko eta errespetuzko oinarrizko arauak eta komunikazio digitalean problemak ebazteko estrategiak.

B.1.8. Ongizate digitala sustatzeko estrategiak. Teknologia digitalen erabilera desegokiarekin eta ez-seguruarekin lotutako arriskuak antzematea (intimitatearen gehiegizko esposizioa, ziberjazarpena, mendekotasun teknologikoa, eduki desegokietan sartzea, etab.), eta jarduteko estrategiak.

### **2. Diseinu eta pentsamendu konputazionalako proiektuak**

B.2.1. Pentsamendu konputazionalaren faseak (ataza bat zati sinpleagoetan deskonposatzea, patroiak antzematea eta problema ebazteko urrats errazak sortzea...).

B.2.2. Diseinu-proiektuen faseak: beharrak identifikatzea, diseinatzea, prototipoak egitea, probatzea, ebaluatzea eta komunikatzea.

B.2.3. Materialak, erremintak, objektuak, gailuak eta baliabide digitalak (blokekako programazioa, sentsoreak, motorrak, simulagailuak, 3D inprimagailuak...), seguruak eta proiektua lortzeko egokiak.

B.2.4. Genero-analisia ikerketa-jardueretan.

B.2.5. Ziurgabetasun-egoeretako estrategiak: estrategia egokitzea eta aldatzea beharrezkoa denean, norberaren eta besteen errorea ikasteko aukera gisa baloratzea.

## **C. Gizarteak eta lurraldeak**

### **1. Egungo munduaren erronkak**

C.1.1. Lurraren eta unibertsoaren etorkizuna. Lurrarekin eta unibertsoarekin lotutako fenomeno fisikoak, eta horiek eguneroko bizitzan eta ingurunean duten eragina. Esplorazio espaziala eta zeruaren behaketa; argi-kutsadura.

C.1.2. Klima eta planeta. Atmosferaren dinamikarako eta munduko klima-eremu handietarako sarrera. Lurraren ardatza, hemisferioak eta poloak. Koordenatu geografikoak. Ekosistema nagusiak eta haien paisaiak.

C.1.3. Ingurune naturala. Euskal Autonomia Erkidegoaren, Euskal Herriaren, Espainiako estatuaren eta Europaren aniztasun geografikoa. Irudikapen grafikoa, bisuala eta kartografikoa bitarteko eta baliabide analogiko eta digitalen bidez, Geografia Informaziorako Teknologia (GIT) erabiliz.

C.1.4. Migrazioak eta kultura-aniztasuna. Aldagai demografiko nagusiak eta horien irudikapen grafikoa. Biztanleriaren portaerak eta haren bilakaera. Migrazio-mugimenduak eta kultura-aniztasunaren aintzatespena. Hiri- eta landa-eremuen arteko kontrastea. Gainpopulazioa eta despopulazioa.

C.1.5. Herritartasun aktiboa ingurune analogikoan zein digitalean. Gizartearen eta herritarren partaidetzarako oinarriak eta printzipioak: ikasleen antolaketa-batzordeak, eskola-kontseilua, elkarteak, boluntariotza, sindikatuak ingurune hurbiletik.

C.1.6. Genero-berdintasuna eta jokabide ez-sexistak. Estereotipoak eta rola kritikatzea esparru guztietan: akademikoa, profesionala, soziala eta kulturala. Pertsona guztien arteko berdintasun eraginkorrerako ekintzak.

### **2. Gizarteak denboran zehar**

C.2.1. Iturri historikoak: iturriak (ahozkoak, idatzizkoak, ondarezkoak) sailkatzea eta erabiltzea, gertakari historikoak ikertzeko, ulertzeko eta egiaztatze elementu gisa.

C.2.2. Euskal Autonomia Erkidegoko, Euskal Herriko eta Iberiar penintsulako garai historikoak (Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea) testuinguruan kokatzea eta ardatz kronologiko batean irudikatzea, honako hauek testuinguruan kokatzeko abiapuntu gisa: historian garrantzia izan duten gaiak, subjektu historikoek (banakakoek eta kolektiboek) betetako zeregina, gertaerak eta prozesuak.

C.2.3. Emakumearen zeregina historian eta haren eskubideen aldeko mugimendu nagusiak. Egungo egoera eta etorkizuneko erronkak aukera-berdintasunerako.

C.2.4. Demokraziarako trantsizio-prozesua Espainiako estatuan: 1978ko Konstituzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.

C.2.5. Erdi Aroko eta Aro Garaikideko adierazpen artistiko eta kulturalak, eta haien testuinguru historikoa genero-ikuspegitik. Arteak eta kulturak gaur egun duten eginkizuna.

C.2.6. Natura- eta kultura-ondarea ondasun eta baliabide gisa; haren erabilera, zaintza eta kontserbazioa.

### **3. Alfabetatze zibikoa**

C.3.1. Espainiako identitate etniko-kulturalen eta hizkuntzen aniztasuna: Euskal Autonomia Erkidegoa, euskararen lurraldeak (Euskal Herria).

C.3.2. Giza eskubideen eta haurren eskubideen printzipioak eta balioak. Eskubideen eta betebeharren arteko lotura.

C.3.3. Konstituzioak: kontzeptua eta funtzioa. Espainiako Konstituzioa, herritarren eskubideak eta betebeharrak.

C.3.4. Herritarrek bizitza publikoan parte hartzeko formulak.

C.3.5. Estatuak gizarte-arloan duen zeregina.

C.3.6. Bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura. Pentsamendu kritikoa, interes-gatazkak aztertze tresna gisa.

C.3.7. Antolaketa politikoa. Tokiko, autonomia-erkidegoetako eta Estatuko erakunde politiko eta administratibo nagusiak (Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia), eta horien testuingurua Europar Batasunean (udalak, foru-aldundiak, autonomia- eta estatu-gobernuak, parlamentuak).

C.3.8. Ordezkaritza eta parte-hartze politikoko sistemak (alderdi politikoak, sindikatuak, gobernuz kanpoko erakundeak, gizarte-mugimenduak...).

C.3.9. Erakundeen erabakien eta balioen arteko lotura.

C.3.10. Hirugarren sektorea: zerbitzu publikoak eta pribatuak

C.3.11. Oinarrizko finantza-hezkuntza: dirua eta bankuak.

C.3.12. Norberaren eta enpresaren erantzukizuna gure ongizate-estatuari eusteko zergen ordainketan.

#### **4. Kontzientzia ekosoziala**

C.4.1. Klima-aldaketa toki-esparrutik esparru globalera: kausak eta ondorioak. Arintzeko eta egokitzeko neurriak.

C.4.2. Erantzukizun ekosoziala. Pertsonaren, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak eta ekomendetasuna. Enpresen erantzukizun sozial eta ekologikoa.

C.4.3. Garapen iraunkorra. Giza jarduera espazioaren gainean eta baliabideen ustiapena. Jarduera ekonomikoa eta aberastasunaren banaketa: gizarte- eta eskualde-desberdintasuna munduan eta Espainian. Garapen iraunkorrerako helburuak.

C.4.4. Eredu ekonomiko berri bat: ekonomia berdea/zirkularra. Garapen iraunkorrerantz. Ondasunetako, finantzetako eta laneko merkatuen eragina herritarren bizitzan eta ekosistemetan (estraktibismoa). Eragile ekonomikoak eta lan-eskubideak genero-ikuspegitik (ekofeminismoa). Zergen balio soziala. Enpresen gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna. Publizitatea, kontsumo arduratsua (beharrak eta nahiak) eta kontsumitzailearen eskubideak.

C.4.5. Bizitza iraunkorra: planetaren mugak eta baliabideen agortzea. Aztarna eta zor ekologikoa.